     - 1.2.1. Alokatuak
     - 1.2.2. Langile beregainak
     - 1.2.3. Pentsiodunak eta bestelakoak
   - 1.3. Gizarte-kotizazio birresleituak
2. Herri-administrazioen ekarpenak
   - 2.1. Zerga bereziak
   - 2.2. Sarrera orokorrak
3. Beste sistema batzuetatiko transferentziak
4. Bestelako sarrerak
   - 4.1. Jabegoaren errentak
   - 4.2. Bestelakoak

**Gizarte-kotizazioak** enplegatzaileek beren alokatuen izenean, pertsona babestuek edo babes-sistemek beraiek jasaten dituzten kostuak dira; horiek guztiek gizarte-prestazioak jasotzeko eskubidea ematen diete horrelako kotizazioen onuradunei.

**Enplegatzailearen konturako gizarte-kotizazioak egiazkoak** edo **egotziak** izan daitezke. Ordainketak aseguratzaile beregain bati egiten bazaizkio, eta prestazioen hornidura horrek berak kudeatzen badu –aseguratzaile hori gizarte-segurantzaren administrazio bat, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat edo aseguru-etxe bat izan daiteke–, edo enpresaren balantzatan beraietan gordekinak eratzen badira, egiazko kotizazioak izango dira. En-

vas. Cuando los empleadores se comprometen a suministrar la prestación directamente a sus trabajadores sin que medie asegurador autónomo, y sin constitución de reservas, se habla de cotización social imputada.

Las **Cotizaciones Sociales** pueden correr también **a cargo de las personas protegidas**, sean éstas asalariados, trabajadores autónomos o pensionistas.

Las **Cotizaciones Sociales Reasignadas** son las que realiza un sistema de protección social a otro con el fin de mantener o incrementar en éste los derechos de las personas que protege.

Las **Aportaciones de las Administraciones Públicas** son las destinadas a sufragar los costes de los sistemas públicos no contributivos o bien a complementar los ingresos del resto de los sistemas. Puede tratarse de ingresos derivados de la recaudación de impuestos específicos legalmente vinculados a la provisión de una prestación o un sistema de protección determinado, aunque por lo general se trata de aportaciones genéricas realizadas por las Administraciones sin encontrarse sujetas a la percepción de ningún ingreso específico (ingresos generales).

El cálculo de las Aportaciones Públicas presenta dificultades en aquellos casos en los que existe una única entidad u organismo cuyo funcionamiento afecta al conjunto del territorio nacional, y que en concepto de Aportación Pública recibe una cantidad única procedente de la Administración Central del Estado. En estos casos la cuestión radica en determinar la proporción en que la Comunidad Autónoma Vasca contribuye al mantenimiento de los gastos del organismo en el conjunto del Estado.

Este problema afecta principalmente a los ingresos del Sistema de Seguridad Social y a los del Instituto Nacional de Empleo. En el primero de los casos se ha recurrido a la estimación de los ingresos de la Seguridad Social elaborada en el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, y que utiliza como criterio el de las aportaciones de la C. A. de Euskadi al sostenimiento de las competencias no transferidas tal y como se especifica en la Ley de Cupo.

Este mismo criterio es el que se ha juzgado apropiado en el caso de los ingresos del INEM en concepto de Aportaciones Públicas.

**Transferencias de otros sistemas.** Son pagos sin compensación entre los diferentes Sistemas de Protección Social. Constituyen un ingreso para el sistema que las percibe.

**GASTOS:** De acuerdo con el Manual SEEPROS los gastos de los Sistemas de Protección Social pueden clasificarse en los siguientes conceptos:

1. Prestaciones Sociales
2. Gastos Administrativos
3. Transferencias a otros sistemas
4. Otros gastos
   4.1. Rentas de la propiedad
   4.2. Otros

Las **Prestaciones Sociales** constituyen el núcleo de la estadística. Son los pagos, tanto en efectivo como en especie, que reci-

plegatzaileek hitz ematen badute langileei zuzenean prestazioa eskainiko dietela, aseguratzaile beregainen bitartekotzarik gabe eta gordekinik eratu gabe, gizarte-kotizazio egotzia dela esaten da.

**Gizarte-kotizazioak pertsona babestuen konturakoak** ere izan daitezke, pertsona horiek alokatuak, langile beregainak edo pentsiodunak diren alde batera utzita.

**Gizarte-kotizazio birresleituak** gizarte-babeseko sistema batetik beste batera egiten direnak dira, eta babesten dituen pertsonen eskubideak beste sistema horretan babesteko egiten dira.

**Herri-administrazioen ekarpenak** sistema publiko ez-kontributiboen kostuak pagatzera edo gainerako sistemen sarrerak osatzera bideratzen direnak dira. Prestazio baten edo babeseko sistema jakin baten hornidurari legez lotutako berariazko zergen biltzetik datozen sarrerak izan daitezke; nahiz eta, eskuarki, administrazioek egindako ekarpen orokorrak izaten diren, eta ez daude atxikita berariazko ezein sarrera jasotzera (sarrera orokorrak).

Ekarpen publikoak kalkulatzea zaila izaten da erakunde edo organismo bakar bat dagoenean, baldin eta horren jardunak estatu baten lurralde osoa hartzen badu. Izan ere, erakunde bakarra badago, ekarpen publiko gisa, kopuru bakar bat jasotzen du horrek, Estatuko administrazio zentraletik. Kasu horietan, arazoa honako hau izaten da: erakunde horrek Estatu osoan dituen gastuei erantzuteko, Euskal Autonomia Erkidegoak zenbateko ekarpena egiten duen zehaztea.

Arazoa, batik bat, gizarte-segurantzako sistemaren eta Espainiako Enplegu Institutuaren sarrerei dagokie. Lehenengo kasuan, gizarte-segurantzaren sarreren zenbatespen batera jo dugu. Eusko Jaurlaritzako Justizi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak egiten du lan hori, eta, irizpide gisa, eskualdatu ez diren eskumenak ordaintzeko Euskal AEk egiten dituen ekarpenak hartzen dira, Kupoaren Legean zehaztutakoari jarraituz.

Irizpide hori bera jo da egokitzat, INEMek ekarpen publiko gisa hartzen dituen sarreren kasuan.

**Beste sistema batzuetatiko transferentziak.** Gizarte-babeseko sistemen arteko ordainketak dira. Kitapenik gabeko ordainketak dira, eta jasotzen dituen sistemarentzat, sarrerak dira.

**GASTUAK:** GBABESE Eskuliburuaren arabera, gizarte-babeseko sistemen gastuak honela sailka daitezke:

1. Gizarte-prestazioak
2. Administrazio-gastuak
3. Beste sistema batzuetarako transferentziak
4. Bestelako gastuak
   4.1. Jabegoaren errentak
   4.2. Bestelakoak

**Gizarte-prestazioak** dira estatistika honen gunea. Familiek gizarte-babeseko sistemetatik jasotzen dituzten ordainketak dira.

ben los hogares desde los sistemas de protección social y son suministrados directamente, es decir, suponen un incremento equivalente de la renta disponible del beneficiario. Las prestaciones sociales son objeto de clasificación de acuerdo con *Funciones* y *Tipo*s tal y como se detalla más adelante. Además de las funciones consignadas en la propia definición de Protección Social, se recogen también como Prestaciones Sociales las Cotizaciones Reasignadas pagadas por unas entidades de protección social a otras con el objetivo de que sus protegidos disfruten de la cobertura que estas últimas ofrecen. En este concepto entran, por ejemplo, las cotizaciones a la Seguridad Social que el INEM efectúa para asegurar el derecho de los desempleados que se encuentran a su cargo a la recepción de determinados beneficios.

Ordainketa horiek dirutan edo jenerotan ematen dira, eta zuzenean eskaintzen dira, hau da, onuradunaren errenta erabilgarriaren gehikuntza baliokide bat suposatzen dute. Gizarte-prestazio horiek *funtzioen* eta *moten* arabera sailkatzen dira, aurrerago zehaztuko dugunez. Gizarte-babesaren definizioan bertan jasotzen diren funtzioez gain, kotizazio birresleituak ere gizarte-prestaziotzat hartzen dira. Kotizazio horiek gizarte-babeseko sistema batek beste bati ordaintzen dizkionak dira, beren babestuek azken horiek eskaintzen duten estaldura goza dezaten. Atal horretan sartzen dira, adibidez, INEMek, bere kontura dauden langabeek onura jakin batzuk jasotzeko eskubidea ziurtatzeko, Gizarte-Segurantzari egiten dizkion kotizazioak.

Los **Gastos Administrativos** son los derivados de la gestión y administración de los Sistemas de Protección.

**Administrazio-gastuak** babeseko sistemen kudeaketatik eta administraziotik datozenak dira.

Las **Transferencias** son los pagos sin compensación a otros Sistemas de Protección Social.

**Transferentziak** gizarte-babeseko beste sistema batzuetara egiten diren ordainketak dira; kitapenik gabeko ordainketak dira.

En los **Otros Gastos** se recogen las rentas de la propiedad que se corresponden principalmente con los pagos por intereses, y otros gastos que no pueden clasificarse en los conceptos anteriores.

**Bestelako gastuak** atalean, jabegoaren errentak jasotzen dira. Errenta horiek, batik bat, interesengatiko ordainketei dagozkie, eta aurreko ataletan sailka ez daitezkeen beste gastu batzuei.

**FUNCIONES:** Las contingencias cuya cobertura se incluye dentro del concepto de Protección Social adquieren la denominación de Funciones y son las siguientes:

**FUNTZIOAK:** gizarte-babesaren atalaren barruan sartzen diren gorabeherei funtzioak deitzen zaie, eta honako hauek dira:

**Función Enfermedad / Atención Sanitaria:** En esta función deben incluirse dos tipos de prestaciones:

Las prestaciones en dinero que sustituyen la pérdida de ingresos por motivo de enfermedad.

La prestación de Asistencia Sanitaria independientemente de cual fue la razón que la produjo. Este criterio, que constituye una novedad con respecto a la Metodología 1981, implica que la asistencia prestada por motivo de invalidez o maternidad, se incorpora en esta función en lugar de en las de Invalidez y Familia e Hijos respectivamente. En cambio, la Atención Sanitaria proporcionada al trabajador en la empresa no se recoge por considerarse un input necesario en el proceso productivo, del cual el empresario obtiene un rendimiento y por el que, lógicamente, debe abonar una cantidad.

**Gaixotasuna / osasun-asistentzia funtzioa:** funtzio honetan, bi eratako prestazioak sartu behar dira:

Gaixotasunagatik sarrerak galtzen direnean, galera horiek ordezten dituzten dirutan emandako prestazioak.

Osasun-asistentzia eskaintzea, asistentzia hori edozein arrazoi dela eta eman arren. Irizpide hori gauza berria da, 1981eko metodologiaren aldean. Hori dela eta, elbarritasunagatik edo amatasunagatik ematen den asistentzia funtzio honetan sartu dugu, eta ez, hurrenez hurren, elbarritasuna eta familia eta seme-alabak funtzioetan. Langileari enpresan bertan eskaintzen zaion osasun-asistentzia, aldiz, ez da biltzen, zeren input hori beharrezkoa baita produkzio-prozesuan, eta enpresaburuak etekina ateratzen du hortik; beraz, logikoa da horregatik kopuru bat ordaintzea.

**Función Invalidez:** Esta función incluye diferentes prestaciones que se pueden clasificar en dos grandes tipos:

Por un lado las prestaciones económicas destinadas a resarcir al beneficiario de la reducción de ingresos por motivo de la pérdida total o parcial de su capacidad para desarrollar una actividad laboral, en los términos establecidos por la legislación.

Por otro los servicios de rehabilitación y otros, excepto los de asistencia sanitaria que se computan en la función Enfermedad / Atención Sanitaria.

Es importante precisar que sólo se contabilizan en esta función las pensiones de invalidez percibidas por beneficiarios que no hayan llegado a la edad de jubilación, superada ésta la presta-

**Elbarritasuna funtzioa:** funtzio honetan hainbat prestazio sartzen da. Prestazio horiek bi talde nagusitan sailka daitezke:

Alde batetik, lan-jarduera bat burutzeko ahalmena osorik edo zatika galtzen denean, sarrerak gutxitu egiten dira; galera horren ordainetan, diru-prestazio batzuk ematen zaizkio onuradunari, legeek ezartzen duten baldintzetan.

Bestetik, birgaitze-zerbitzuak eta antzekoak, osasun-laguntzakoak izan ezik, zeren horiek gaixotasuna / osasun-asistentzia funtzioan zenbatzen baitira.

Zehaztu behar da funtzio honetan ez direla zenbatzen erretiro--adinera iritsi ez diren onuradunek jasotzen dituzten elbarritasun--pentsioak. Era berean, behin-behineko edo aldi baterako lan-

ción se imputa a la función Vejez. Del mismo modo, las prestaciones económicas y asistenciales en periodos de incapacidad laboral de carácter provisional o transitorio (de acuerdo con los criterios establecidos por ley) no se incluyen aquí sino en la función Enfermedad / Atención Sanitaria.

**Función Vejez:** Abarca todo el conjunto de prestaciones diseñadas con el fin de paliar las consecuencias de la vejez, incluidas la pérdida de ingresos, la pérdida de autonomía en la realización de tareas cotidianas, o la disminución de la actividad social. En consecuencia se incluyen en esta función tanto las pensiones como otras prestaciones de carácter asistencial.

Según lo establecido en el Manual SEEPROS 1996, esta función incluye también todas aquellas pensiones de invalidez o supervivientes percibidas por pensionistas que hayan superado la edad de jubilación.

**Función Supervivientes:** En esta función se contemplan las prestaciones económicas concedidas a personas de edad inferior a la de jubilación que hayan sufrido la pérdida del familiar o persona que representara su principal sostén económico.

Del mismo modo se incluyen ciertas compensaciones dirigidas a cubrir las cargas originadas por el fallecimiento, como pueden ser los gastos funerarios.

**Función Familia / Hijos:** Incorpora las ayudas financieras concedidas a los hogares con el objeto de aminorar las cargas que suponen la natalidad y la crianza de los hijos, así como el mantenimiento de otros miembros de la familia. Se incluye aquí el mantenimiento de la renta de las mujeres trabajadoras en el periodo previo y/o posterior al parto.

Asimismo están recogidos en esta función todos aquellos Servicios Sociales destinados a proteger a la institución familiar y a los hijos en particular, como puede ser el alojamiento en centros especializados o en hogares particulares, o los servicios de guardería.

**Función Desempleo:** En el Manual SEEPROS 1996 esta función recoge, de acuerdo con una clasificación corriente en las políticas de empleo, por un lado, las *medidas pasivas*, es decir aquellas destinadas a paliar las consecuencias derivadas de la carencia de un empleo remunerado, y en especial la privación de ingresos, y por otro, *las medidas activas*, dirigidas a prevenir o reducir las situaciones de desempleo.

Por tanto, esta función se compone de los subsidios de desempleo (parcial o completo), las rentas de subsistencia, o las pensiones de jubilación anticipada siempre y cuando la causa de la jubilación se encuentre en la situación del mercado laboral, pero también los subsidios de formación profesional y todo tipo de ayudas y prestaciones dirigidas a mejorar las posibilidades de empleo presentes y futuras del beneficiario.

Entre los cambios introducidos en la revisión metodológica de 1996, hay tres que afectan de manera específica a esta función:

**Función Vivienda:** Se trata, en este caso, de las ayudas prestadas a los hogares para hacer frente a los gastos de la vivien-

-ezintasuneko aldietan jasotzen diren diru- edo asistentzia-prestazioak ere ez dira hemen sartzen (legeek ezartzen dituzten irizpideekin bat etorriz), baizik eta gaixotasuna / osasun-asistentzia funtzioan.

**Zahartzaroa funtzioa:** zahartzaroaren ondorioak arintzeko prestatu diren laguntza guztiak hartzen ditu, hala nola sarreren galera, eguneroko lanak egiteko gaitasunaren galera edo gizarte-jarduera gutxitzea. Ondorioz, funtzio honetan sartzen dira pentsioak ezezik asistentziako beste prestazio batzuk ere.

1996ko GBABESE Eskuliburuan ezarrita dagoenaren arabera, erretiro-adina gainditu dituen pentsiodunek jasotzen dituzten elbarritasuneko edo umezurtz-alargunentzako pentsioak ere funtzio honetan sartzen dira.

**Umezurtz-alargunak funtzioa:** funtzio honetan, erretiro-adinaren azpitiko pertsonei ematen zaizkien diru-prestazioak jasotzen dira. Diru-laguntza horiek senideren bat edo diru-sostengu nagusia den pertsonaren bat galtzen dutenei ematen zaie.

Era berean, hiltzeak eragindako kargak estaltzera zuzendutako kitapen batzuk ere sartzen dira, hala nola hileta-gastuak.

**Familia / seme-alabak funtzioa:** familiei ematen zaizkien diru-laguntzak hartzen ditu. Laguntza horiek seme-alaben jaiotzeak eta hazteak dakartzaten kargak gutxitzeko ematen dira. Hemen sartzen da erditzearen aurretik eta/edo ondoren emakumezko langileen errentei eusteko ematen direnak.

Era berean, funtzio honetan sartzen dira familia eta, batez ere, seme-alabak babestera bideratzen diren gizarte-zerbitzu guztiak, hala nola zerbitzu espezializatuetan edo etxe pribatuetan ohe/janaria ematea edo haurtzaindegiak.

**Langabezia funtzioa:** 1996ko GBABESE Eskuliburuan, enplegu-politiketan ohikoa den sailkapen baten arabera, funtzio honek ondorengo hauek biltzen ditu: alde batetik, neurri pasiboak, hau da, enplegu ordaindu baten gabeziatik datozen ondorioak arintzera bideratzen direnak, eta, bestetik, neurri aktiboak, langabezia-egoerak aurreikustera edo murriztera zuzentzen direnak.

Beraz, funtzio hori langabeziako laguntzek (osoa edo zatikoa), biziraupen-errentek edo erretiroko pentsioek osatzen dute, baldin eta erretiratzeko arrazoia lan-merkatuaren egoeran badago. Era berean, lanbide-prestakuntzako laguntzak eta onuradunaren oraingo edo geroko lan-aukerak hobetzera zuzendutako era guztietako laguntzak eta prestazioak ere sartzen dira.

1996ko metodologi berrikuspenean sartu diren aldaketen artetik, hiruk bete-betean ukitzen dute funtzio hau:

**Etxebizitza funtzioa:** kasu honetan, etxebizitzaren gastuei aurre egiteko familiei ematen zaizkien laguntzak dira. Laguntzak etxe-

da. Las ayudas deben estar dirigidas a los ocupantes, bien sean propietarios de la vivienda, bien la ocupen en alquiler, y no a los constructores, ni a los propietarios que no ocupen sus viviendas. Las formas que adquieren las ayudas son básicamente las transferencias corrientes destinadas a aminorar los costes de alquiler o los pagos de los intereses de las hipotecas.

En las cuentas SEEPROS de la C. A. de Euskadi se incluyen en este apartado algunas acciones que lleva a cabo el Gobierno Vasco a través del programa de Ayudas de Emergencia Social para facilitar el acceso a la vivienda de las capas sociales más desprotegidas, así como las ayudas para la adquisición de primera vivienda de las Mutualidades de Funcionarios, por lo que es posible que hayan quedado sin contabilizar, debido a problemas de medición, algunas acciones que pudieran avenirse al concepto de Protección Social manejado, como las llevadas a cabo por el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco.

**Función Exclusión Social no clasificada en otra parte**: Esta función dispone de un carácter residual dentro de la configuración del esquema funcional que plantea el Manual SEEPROS 1996. En ella se encuentran aquellas prestaciones relacionadas con riesgos y necesidades que no se incorporan en ninguna otra función. Lógicamente, la función recoge una serie heterogénea de prestaciones cuya característica común radica en que tratan de evitar o paliar las situaciones de exclusión social ligadas a la escasez de recursos económicos o la presencia de problemas relativos a la salud, la educación o el empleo.

**PANORÁMICA NACIONAL E INTERNACIONAL:** Una de las posibilidades más interesantes que ofrece la metodología SEEPROS es la de comparar los resultados obtenidos con los de los países de la Unión Europea. Tal comparación se efectúa en el capítulo 5, que se encuentra dividido en dos apartados. En el primero de ellos, junto a los de la C. A. de Euskadi, se pueden hallar los resultados de la aplicación de la Metodología 1981 a la mayor parte de los países que componen actualmente la Unión Europea. Dado que la información referente a la C. A. de Euskadi se ha elaborado teniendo en cuenta los criterios convenidos en el Manual SEEPROS 1996, el resultado de esta comparación ha de tomarse con cautela. Por esa misma razón parece conveniente realizar una serie de matizaciones sobre su alcance y virtualidad.

En lo que se refiere a los gastos (tablas 5.1.1 y 5.1.2) cabe señalar lo siguiente:

- Debido a que la nueva metodología propone una configuración funcional diferente del gasto en Protección Social, la comparación se halla limitada al gasto total y a dos de las funciones más importantes para las que es posible adecuar los términos de la comparación: Vejez y Desempleo.

- En el Manual SEEPROS 1996, no así en la Metodología 1981, la función Vejez incorpora todas aquellas pensiones de invalidez o supervivientes que tengan por beneficiarios a personas que hayan alcanzado la edad de jubilación. Como consecuencia, será lógico apreciar en las cuentas SEEPROS de la C. A. de Euskadi una mayor dimensión de esta función en comparación con el resto de los países.

bizitzak betetzen dituztenei ematen zaizkie, bai etxebizitzen jabeei, bai errentan bizi direnei, eta ez eraikitzaileei edo beren etxebizitzan bizi diren jabeei. Laguntza horiek, oro har, uneko transferentzien bidez egiten dira, eta errentaren kostuak gutxitzera edo hipoteken interesak ordaintzera bideratzen dira.

Euskal AEko GBABESE kontuetan, Eusko Jaurlaritzak gizarte-larrialdietarako laguntzen programaren bidez burutzen dituen ekintza batzuk sartu dira atal honetan. Gizarte-maila desbabestuenei etxebizitza erosteko aukera emateko izaten dira laguntza horiek, bai eta funtzionario publikoen mutualitateetako kideei lehen etxebizitzak erosteko ematen zaizkienak ere. Beraz, baliteke zenbatzeke geratu izana erabili dugun gizarte-babesaren kontzeptuarekin bat etor zitezkeen ekintza batzuk, hala nola Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak burutzen dituenak.

**Beste inon sailkatuta ez dagoen gizarte-bazterkeria funtzioa:** funtzio hau bigarren mailakoa da, 1996ko GBABESE Eskuliburuak proposatzen duen funtzio-eskemaren egituraren barruan. Bertan, beste ezein funtziotan sartzen ez diren arriskuekin eta beharrekin lotutako ekintza guztiak agertzen dira. Logikoa denez, funtzio honetan, era guztietako prestazioak sartzen dira, eta horien ezaugarri komun bakarra honako hau da: guztiek gizarte-bazterkeriako egoerak saihesten edo arintzen saiatzen dira, dela diru-baliabideen urritasunari lotutakoak, dela osasunari, hezkuntzari edo enpleguari buruzko arazoak izateari lotutakoak.

**ESTATUKO ETA NAZIOARTEKO LABURBILDUMA:** GBABESE metodologiak eskaintzen duen aukera interesgarrienetako bat lortutako emaitzak Europako Batasunekoekin alderatzea da. Alderaketa hori 5. atalean egiten da, eta bi ataletan dago banatuta. Horietarik lehenengoan, Euskal AEkoekin batera, gaur egun Europako Batasuna osatzen duten herrialde gehienei 1981eko metodologia aplikatzearen emaitzak aurki daitezke. Euskal AEri buruzko informazioa 1996ko GBABESE Eskuliburuan erabakitako irizpideak kontuan izanik osatu denez, alderaketa horren emaitza zuhurtziaz hartu behar da. Hori dela eta, zehaztasun batzuk egin behar dira alderaketa horren garrantziari eta balioari buruz.

Gastuei dagokienez (5.1.1 eta 5.1.2 taulak), honako hau aipatu behar da:

- Metodologia berriak gizarte-babeseko gastuaren beste funtzio-egitura bat proposatzen duenez, alderaketa hori guztizko gastura eta garrantzi handieneko bi funtzioetara mugatzen da (zahartzaroa eta langabezia), alderaketa-gaiak horietara bakarrik egokitu baitaitezke.

- 1996ko GBABESE Eskuliburuan, 1981eko metodologian ez bezala, onuraduntzat erretiro-adinera iritsi diren pertsonak dituzten elbarritasuneko edo alargun-umezurrentzako pentsio guztiak zahartzaroa funtzioan sartzen dira. Horren ondorioz, ikus daiteke funtzio horrek tamaina handiago duela Euskal AEko GBABESE kontuan, beste herrialde batzuen aldean.

– En cuanto a la protección frente al Desempleo, el nuevo manual agrupa lo que hasta el momento habían sido dos funciones separadas, la de Promoción del Empleo (originariamente se denominó Colocación, Orientación y Movilidad), y la de Desempleo. La nueva función que incluye estas dos adquiere la denominación genérica de Desempleo. En los epígrafes de las tablas se ha optado por esta última denominación a pesar de que las cifras recogidas se refieren a la suma de las dos funciones arriba mencionadas.

– Por otro lado, el Manual SEEPROS 1996 introduce la noción de Cotización Reasignada, que ya ha sido objeto de definición en este mismo capítulo. En este apartado se recogen las cotizaciones realizadas por el INEM a la Seguridad Social en beneficio de los desempleados, y que no se diferenciaban del resto de las prestaciones por desempleo en la Metodología 1981. Para la comparación se ha sumado el valor de estas cotizaciones a la cifra obtenida en la función Desempleo en la C. A. de Euskadi.

– Por último, es necesario advertir que los gastos de administración de las oficinas de empleo dejan de contabilizarse como Prestación Social en la nueva metodología, con lo que el dato de la C. A. de Euskadi en esta función se hallará infravalorado en relación con del resto de los países, en esta función.

En cuanto a los ingresos (tabla 5.1.3) dos consideraciones son relevantes:

– Las transferencias entre unos Sistemas de Protección Social y otros se han consolidado. Las transferencias, si bien suponen un aumento de los ingresos para los sistemas perceptores, lo hacen a costa de una pérdida equivalente de capacidad financiadora de otros Sistemas de Protección Social, razón por la cual, desde el punto de vista del conjunto del sistema, no tiene sentido computarlas como ingreso y como gasto al mismo tiempo. La exclusión de las transferencias en esta tabla explica la diferencia que existe con respecto a las de los capítulos de Resumen y de Ingresos, en los cuales el total de ingresos aparece como la suma de los ingresos de cada uno de los Grupos de Sistemas, incluidos los procedentes de las transferencias.

– La aparición de las Cotizaciones Reasignadas en el Manual SEEPROS 1996 afecta también a la presentación de los ingresos de los Sistemas de Protección Social. En este capítulo de comparaciones se ha procedido a incorporar la cantidad que les corresponde, según los nuevos criterios, en la rúbrica Cotizaciones Sociales de Pensionistas y otros, a la que hubiera ido a parar de haberse utilizado la Metodología 1981 también en la Cuenta de la C. A. de Euskadi.

**PPCs:** Algunas de las comparaciones internacionales se presentan en unidades de poder de compra o PPCs (*PPS Purchasing Power Standard*). El objetivo que se persigue no es otro que el de representar de manera fidedigna el poder adquisitivo al que equivalen las Prestaciones Sociales concedidas en los distintos países, teniendo en cuenta que existen importantes diferencias de precios entre ellos. Los convertidores de las monedas nacionales en PPCs se han obtenido de la publicación de EUROSTAT “National Accounts ESA 1970-1995”.

– Langabeziaren aurkako babesari dagokionez, eskuliburu berriak orain arte bereizita zeuden bi funtzio bateratu ditu: enpleguaren sustapena (jatorriz, lan-kontratuak, orientabideak eta mugikortasuna deitu zitzaion) eta langabezia. Beste bi funtzio horiek bereganatu dituen funtzio berri horri, oro har, langabezia deitu zaio. Taulen goiburukoetarako, azken izen hori aukeratu dugu, nahiz eta hor biltzen diren datuak goian aipatutako bi funtzioen baturari buruzkoak izan.

– 1996ko GBABESE Eskuliburuak, bestalde, kotizazio birresleituaren nozioa sartzen du. Atal horretan, INEMek langabetuen mesedetan Gizarte-Segurantzari egiten dizkion kotizazioak jasotzen dira; 1981eko metodologian, prestazio horiek ez ziren bereizten gainerako langabezia-prestazioetatik. Alderaketa egiteko, kotizazio horien balioari Euskal AEn langabezia funtzioan lortutako kopurua batu zaio.

– Azkenik, adierazi behar da enplegu-bulegoen administrazio--gastuak ez direla gizarte-prestazio gisa zenbatzen metodologia berrian; beraz, Euskal AEk funtzio horretan ematen duen datua ez dago behar bezala irudikatuta, beste herrialde batzuetakoaren aldean.

Sarrerei dagokionez (5.1.3 taula), bi ohar aipagarri:

– gizarte-babeseko sistema batzuen eta besteen arteko transferentziak sendotu egin dira. Transferentzia horiei esker gehitu egin dira sistema hartzaileen sarrerak; babeseko beste sistemek, aldiz, finantza-ahalmena galdu dute, neurri berean. Hori dela eta, sistema osoaren ikuspegitik, ez du zentzurik aldi berean sarrera eta gastu gisa zenbatzeak. Beraz, transferentziak ez dira sartu taula honetan; hori dela eta, diferentzia batzuk daude, Laburpena eta Sarrerak kapituluetakoen aldean, zeren horietan sarreren guztizkoa sistema-talde bakoitzaren sarreren batura gisa agertzen baita, transferentzietatiko sarrerak barne direla.

– 1996ko GBABESE Eskuliburuan kotizazio birresleituak sartu izanak gizarte-babeseko sistemen sarrerak aurkezteko modua ere ukitu du. Alderaketen kapitulu horretan, irizpide berrien arabera dagozkien kopuruak sartu dira, Pentsiodunen eta Bestelakoen Gizarte-Kotizazioak atalean. Euskal AEko Kontuan 1981eko metodologia erabili izan balitz ere, kopuru horiek atal horretara joango ziren.

**PPCak:** nazioarteko zenbait alderaketa eros ahalmenaren parekotasuneko (EAP) unitateetan edo PPSetan (*PPS Purchasing Power Standard*) aurkezten dira. Horren bidez, honako hau lortu nahi dugu: herrialde bakoitzean ematen diren gizarte-prestazioek zenbateko balioa duten argi eta garbi irudikatzea. Estatu bakoitzeko diruak PPSetara bihurtzeko, EUROSTATen honako argitalpen hau erabili da: “National Accounts ESA 1970-1995”.

**FUENTES:** Las principales fuentes de información utilizadas en cada uno de los Grupos de Sistemas son las siguientes:

**Sistema de Seguridad Social**

“Cuentas de la Seguridad Social del País Vasco. 1996”. Dpto. de Trabajo del Gobierno Vasco.

Cuentas de Liquidación de las Delegaciones provinciales en los tres Territorios de la Comunidad Autónoma de Euskadi de las entidades no transferidas del Sistema de Seguridad Social.

Cuentas de liquidación del Organismo Autónomo Administrativo OSAKIDETZA – Servicio Vasco de Salud.

“Estadística Hospitalaria” y “Estadística Extrahospitalaria Pública”, publicadas por Eustat-Instituto Vasco de Estadística.

Publicación “Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social. Balance Social y Memoria Económico-Financiera”, editada por la Dirección General de Ordenación de la Seguridad Social, Secretaría de Estado de la Seguridad Social del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

**Instituto Nacional de Empleo**

Direcciones Provinciales del INEM.

Subdirección General de Servicios Técnicos del INEM.

**Regímenes de Funcionarios Públicos**

Memorias de las tres Mutualidades de Funcionarios con actividades en 1995, MUFACE, ISFAS y MUGEJU.

Subdirección General de Gestión de Clases Pasivas del Ministerio de Economía y Hacienda.

Contabilidad Nacional de España. Base 1986. INE

**Otros Sistemas de Protección Social**

“Estadística de Servicios Sociales (Entidades y Centros)”, EustaT-Instituto Vasco de Estadística.

Informe “El gasto Público en Servicios Sociales en la Comunidad Autónoma Vasca”, Dirección de Estudios del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social Gobierno Vasco.

Encuesta de Coste Laboral, INE.

Anuario de Estadísticas Laborales y de Asuntos Sociales. Subsecretaría de Trabajo y Asuntos Sociales.

“Estadística Hospitalaria” y “Estadística Extrahospitalaria Pública”, publicadas por Eustat-Instituto Vasco de Estadística.

Memorias de Actividades de las instituciones involucradas en la provisión de protección social.

**Otras Fuentes**

“Anuario Estadístico”. Eustat-Instituto Vasco de Estadística.

“Els Compiles de la Protecció Social a Catalunya. 1991-1995.” Institut d’Estadística de Catalunya.

“Social Protection Expenditure and Receipts. 1980-94” EUROSTAT.

**ITURRIAK:** hona hemen sistema-talde bakoitzean erabili diren informazio-iturriak:

**Gizarte-segurantzako sistema**

“Cuentas de la Seguridad Social del País Vasco. 1996”. Eusko Jaurlaritzako Lan Saila.

Gizarte-segurantzako sistematik eskualdatu ez diren erakundeen lurralde-ordezkaritzen likidazio-kontuak (Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeak).

OSAKIDETZA administrazio-erakunde autonomoaren likidazio--kontuak.

“Ospitale-Estatistika” eta “Ospitaleez Kanpoko Estatistika Publikoa”. Eustat, Euskal Estatistika Erakundea.

“Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social. Balance Social y Memoria Económico-Financiera”. Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia. Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioko Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritza.

**Espainiako Enplegu Institutua**

INEMen lurralde-ordezkaritzak.

INEMen Zerbitzu Teknikoen Zuzendariordetza Nagusia.

**Funtzionario publikoen errejimenak**

1995ean jarduerak izan zituzten funtzionarioen hiru mutualitateen urteko txostenak: MUFACE, ISFAS eta MUGEJU.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Klase Pasiboen Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusia.

“Contabilidad Nacional de España. Base 1986”. INE

**Gizarte-babeseko beste sistema batzuk**

“Gizarte-Zerbitzuen Estatistika (Entitateak eta Zentroak)”. EustaT, Euskal Estatistika Erakundea.

“El gasto Público en Servicios Sociales en la Comunidad Autónoma Vasca” txostena. Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Azterlanen Zuzendaritza.

“Encuesta de Coste Laboral, INE”.

“Anuario de Estadísticas Laborales y de Asuntos Sociales”. Lan eta Gizarte Arazoetako Idazkariordetza.

“Ospitale-Estatistika” eta “Ospitaleez Kanpoko Estatistika Publikoa”. Eustat, Euskal Estatistika Erakundea.

Gizarte-babesaren hornidurаren arloan lan egiten duten erakundeen jarduera-txostenak.

**Beste iturri batzuk**

“Urtekari Estatistikoa “. Eustat, Euskal Estatistika Erakundea.

“Els Compiles de la Protecció Social a Catalunya. 1991-1995.” Institut d’Estadística de Catalunya.

“Social Protection Expenditure and Receipts. 1980-94” EUROSTAT.

# EMAITZEN ANALISIA

# ANALISIS DE RESULTADOS

## ANALISIS DE RESULTADOS

El gasto en Protección Social en la C. A. de Euskadi alcanzó los 974.018 millones de pesetas en el año 1995. La mayor parte de esta cantidad, el 97,4%, se destinó al pago de Prestaciones de Protección Social, mientras que los Gastos de Administración constituyeron tan sólo un 2,2%. Las Transferencias a Otros sistemas y los Otros gastos, por su parte, no llegaron a alcanzar el 0,4% del gasto total.

Estas cifras sitúan a la C. A. de Euskadi, con 452.415 pesetas de Gasto en Prestaciones Sociales por habitante, por delante del conjunto del Estado, donde el gasto por habitante fue de 382.773 pesetas y de Cataluña, 417.789 pesetas.

La C. A. de Euskadi dedicó en el año 1995 un 21,5 % del PIB a la Protección Social, cifra ligeramente inferior a la del conjunto del Estado, que alcanzó un 23,6%. Cataluña dedicó un 20,2%. La media de la Europa de los Doce fue de 28,6%, con los máximos de Finlandia que destinó un 34,8% y Holanda un 32,3%, y los mínimos de Grecia con un 16% y Portugal, 19,5%.

En cuanto a la distribución territorial del Gasto en Protección Social dentro de la C. A. de Euskadi, la mayor proporción del gasto correspondió a Bizkaia, que se llevó un 55%, Gipuzkoa un 32% y Alava el 13%. El primer puesto de Bizkaia se justifica tanto por la mayor dimensión, en población, de este territorio como por el mayor gasto por habitante en protección social.

## EMAITZEN ANALISIA

1995 urtean, 974.018 milioi pezetakoa izan zen Euskal AEko gizarte-babeseko gastua. Kopuru horren zatirik handiena, % 97,4, gizarte-babeseko prestazioak ordaintzera bideratu zen; administrazio-gastuak, aldiz, % 2,2 besterik ez ziren izan. Beste sistema batzuetara egindako transferentziak eta bestelako gastuak, bestalde, ez ziren gastu osoaren % 0,4ra ere iritsi.

Zenbaki horien arabera, Euskal AE Estatuko batez bestekotik gora dago: gizarte-prestazioetan biztanleko 452.415 pezetako gastua egin zen Euskal AEn, 382.773 pezetakoa Estatu mailan, eta Katalunian, 417.789 pezetakoa.

Euskal AEk 1995 urtean BPGaren % 21,5 zuzendu zuen gizarte-babesera, Estatu osoan (% 23,6) baino gutxixeago. Kataluniak % 20,2 bideratu zuen horretara. Hamabien Europako batez bestekoa % 28,6koa izan zen; gehienekoa Finlandiak (% 34,8) eta Herbehereek (% 32,3) izan zuten, eta gutxienekoa, berriz, Greziak (% 16) eta Portugalek (% 19,5).

Gizarte-babeseko gastuak Euskal AEren barruan lurraldeka izan duen banaketari dagokionez, gastuaren ehunekorik handiena Bizkaiak hartu zuen, % 55; Gipuzkoak, % 32; eta Arabak, % 13. Biztanle gehiago dituelako eta gizarte-babesean biztanle bakoitzeko gastu handiagoa egin delako geratu da Bizkaia aurretik.

**1. grafikoa** / Gráfico 1

**Gizarte-babeseko gastuaren banaketa, lurraldeka**
Distribución territorial del gasto en Protección Social




Una perspectiva europea, que en favor de la comparabilidad se presenta en unidades PPCs (paridad poder de compra), sitúa tanto a la C. A. de Euskadi[1] como a España en una posición similar, con 3.451 y 3.020 PPCs respectivamente, por encima de Grecia, 1.645, Portugal, 2.162 e Irlanda, 2.873, y muy alejada de países como Alemania, 5.514; Francia, 5.500 o Dinamarca, 6.374.

Errazago alderatu ahal izateko, Eros Ahalmenaren Parekotasuneko (EAP) unitateetan aurkeztuko dugu Europako ikuspegia. Europatik begiratuta, bada, Euskal AE[1] eta Espainia antzeko egoeran daude: 3.451 eta 3.020 EAP, hurrenez hurren, Grezia (1.645), Portugal (2.162) eta Irlandaren (2.873) gainetik, eta Alemania (5.514), Frantzia (5.500) edo Danimarka (6.374) bezalako herrialdeetatik oso urrun.

**2. grafikoa** / Gráfico 2

**Aberastasuna eta gizarte-babesa Europan. EAPak**
Riqueza y Protección Social en Europa. PPCs




(1) Los datos utilizados en esta comparación corresponden al año 1994, últimos que se encuentran disponibles, excepto los de la C. A. de Euskadi, que son de 1995.

(1) Alderaketa honetan erabilitako datuak 1994 urtekoak dira (eskura dauden azkenekoak), Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak izan ezik, horiek 1995ekoak baitira.



Eustat

El gráfico 2 refleja con claridad la estrecha relación (el coeficiente de correlación entre ambas variables se sitúa en un 0,94) que une la riqueza con la intensidad del gasto en protección. A mayor renta per cápita corresponde, en el ámbito de la Unión Europea, un mayor gasto en protección social por habitante. Además, una mayor riqueza en términos de PIB per cápita lleva aparejada una mayor participación del gasto de protección social en el PIB.

2. grafikoak garbi islatzen du aberastasunaren eta gizarte-babeseko gastu-mailaren arteko lotura estua (bi aldagaien arteko koerlazio-koefizientea 0,94koa da). Zenbat eta per capita errenta handiagoa, Europako Batasunean, hainbat eta gastu handiagoa gizarte-babesean biztanleko. Gainera, BPG per capita zenbat eta handiagoa izan, handiagoa izango da, berebat, gizarte-babeseko gastuak BPGan hartzen duen zatia.

## TERRITORIALIZACION DEL GASTO

De entre los territorios históricos que componen la C. A. de Euskadi, es en Bizkaia donde la Protección Social alcanzó una mayor intensidad, aunque sea por una pequeña diferencia, con un gasto en Prestaciones Sociales de 460.505 pesetas por habitante en 1995. A continuación se situó Alava con 443.071 pesetas por habitante y casi con la misma cifra Gipuzkoa, con 442.669 pesetas.

Sin embargo, esta jerarquía no se reproduce en cada función o en cada Grupo de Sistemas. La ventaja de Bizkaia se localiza en las funciones Vejez y Supervivientes, dos funciones que acumulan algo más de la mitad de las prestaciones sociales que se realizan en este territorio. En cambio en las funciones Enfermedad-Asistencia Sanitaria, Familia, Desempleo, Vivienda y Exclusión Social la ventaja corresponde a Alava, alcanzando Gipuzkoa la primera posición tan sólo en la función Invalidez.

Atendiendo a los Grupos de Sistemas encargados de la gestión del gasto, se observa que, si bien el Sistema de la Seguridad Social es, con mucho, la agrupación más importante en los tres territorios, la intensidad de su gasto fue mayor en Bizkaia, 326.734 pesetas por habitante frente a las 309.729 de Gipuzkoa o las 288.319 de Alava, lo cual resulta coherente con la primera posición que alcanzó este territorio en la función de Vejez y los gastos por afiliado en alta. A Alava le correspondía el liderazgo en los Regímenes de Funcionarios y de los Otros Sistemas. En el primero de los casos esto se debió a una mayor concentración de funcionarios en este territorio, mientras que en los Otros Sistemas la explicación se puede encontrar en el mayor esfuerzo económico realizado en Servicios Sociales.

En porcentaje de sus PIB respectivos, Bizkaia destinó un 22,8% del suyo a las Prestaciones Sociales, Gipuzkoa un 20,1% y Alava un 17,2%.

## GASTUA, LURRALDEEN ARABERA

Euskal Autonomia Erkidegoa eratzen duten lurralde historikoen artetik, Bizkaia da gizarte-babeseko gastu-maila gorena duena, nahiz eta alde txikiaz izan. Bizkaian, izan ere, gizarte-babeseko gastua, biztanleko 460.505 pezetakoa izan zen 1995ean. Ondoren, Araba ibili zen, biztanleko 443.071 pezetarekin; eta Gipuzkoa ere berdintsu, 442.669 pezetarekin.

Hala ere, ez dugu hierarkia hori bera aurkituko funtzio edo sistema-talde guztietan. Zahartzaroa-n eta umezurtz-alargun-etan doa aurretik Bizkaia; bi funtzio horietan biltzen dira lurralde horretan egiten diren gizarte-prestazioetako erdiak baino gehiago. Gaixotasuna/osasun-asistentzia, familia, langabezia, etxebizitza eta gizarte-bazterkeria funtzioetan, ostera, Araba da buru; eta elbarritasuna funtzioan baizik ez da gailen Gipuzkoa.

Gastua kudeatzeaz arduratzen diren sistema-taldeei erreparatuz gero, ikusiko dugu Gizarte Segurantzako sistemak Bizkaian gastu-maila garaiagoa izan zuela, nahiz eta sistema hori, alde handiaz, hiru lurraldeetan ere talde nagusia den (biztanleko 326.734 pezeta Bizkaian, 309.729 Gipuzkoan, eta 288.319 Araban). Mendebaldeko lurraldearen nagusitasun hori bat dator zahartzaroa funtzioan duen lehendabiziko tokiarekin eta lan-altan dagoen afiliatu bakoitzeko gastuarekin. Araba izan zen nagusi, ordea, funtzionarioen errejimenak eta bestelako sistemak ataletan. Lehendabizikoari dagokionez, lurralde horretan funtzionario-kontzentrazio handiagoa izateari zor zaio; bigarrenaren arrazoia, aldiz, gizarte-zerbitzuetan egindako diru-ahalegin handiagoa izango da.

Bakoitzaren BPGaren ehunekoetan, Bizkaiak % 22,8 bideratu zuen gizarte-babesera; Gipuzkoak, % 20,1, eta Arabak, % 17,2.

## LA DISTRIBUCION FUNCIONAL DE LAS PRESTACIONES SOCIALES

Las prestaciones sociales se clasifican de acuerdo con las contingencias que pretenden cubrir. De entre las funciones que distingue la metodología SEEPROS 1996 fue la

## GIZARTE-PRESTAZIOAK FUNTZIOEN ARABERA NOLA BANATUTA DAUDEN

Gizarte-prestazioak sailkatzeko, zein gorabeherari aurre egin nahi dioten hartzen da kontuan. 1996ko GBABESE metodologiak bereizten dituen funtzioen artetik, zahartza-

Vejez la que se llevó una mayor parte de los recursos en 1995, el 44%.

roa izan zen, 1995ean, baliabideen zatirik handiena (% 44) eraman zuena.

**3. grafikoa** / Gráfico 3

**Gizarte-prestazioak funtzioen arabera nola banatuta dauden**
Distribución funcional de las prestaciones sociales




La siguieron, por orden de importancia, la función Enfermedad-Asistencia Sanitaria, con un 26,3%, que engloba la totalidad de las prestaciones médicas y asistenciales independientemente de la causa que las dio lugar (maternidad, invalidez, accidente laboral o enfermedad profesional, etc.). En un tercer puesto se situó el Desempleo con un 12,3%, Invalidez, 7,5%, Supervivientes, 3,2%, Exclusión social, 3,0%, Familia e hijos, 1,0%, y Vivienda, 0,2%.

Garrantziaren aldetik, hurrengoa gaixotasuna/osasun--asistentzia funtzioa izan zen (% 26,3). Delako funtzioak bere baitan hartzen ditu mediku- eta asistentzia-prestazio guztiak, prestazioa eragin duen kausa gorabehera (amatasuna, elbarritasuna, laneko istripua edo gaixotasuna, etab.). Hirugarrena langabezia izan zen (% 12,3); hurrengoak, elbarritasuna (% 7,5), umezurtz-alargunak (% 3,2), gizarte-bazterkeria (% 3,0), familia eta seme-alabak (% 1,0) eta etxebizitza (% 0,2).

## La función Vejez

A esta función le correspondieron 417.199 millones de pesetas en 1995, lo que representaba un 9,2% del PIB. Estos recursos permitieron que cada habitante mayor de 65 años percibiera, como media, un valor de 1.335.384 pesetas en Prestaciones asociadas a la función vejez.

La mayor parte de este gasto correspondió a pensiones de jubilación[(2)], que se llevaron el 96,7% de la función y determinaron que la mayor parte de los beneficios recibidos por los ancianos adquirieran la forma de prestaciones

## Zahartzaroa funtzioa

Funtzio horrek 417.199 milioi pezeta hartu zituen 1995ean, hau da, BPGaren % 9,2. Baliabide horiei esker, 65 urtez gorako biztanle bakoitzak, batez beste, 1.335.384 pezetaren balioa jaso zuen zahartzaro funtzioari lotutako gizarte-prestazioetan.

Gastu horren zatirik handiena erretiro-pentsioena izan zen[(2)], funtzioaren % 96,7 hartu baitzuen; ondorioz, zaharrek dirutan jaso zuten prestaziorik gehien. Erretiro-pentsio gisa, batez beste, 1.219.872 pezeta eman zen 65 ur-

(2) Las pensiones de invalidez que tienen como beneficiarios a personas mayores de 65 años se encuentran incluidas en esta cantidad.

(2) Hirurogeita bost urtez gorako onuradunak dituzten elbarritasun-pentsioak sartuta daude kopuru horretan.



Eustat

**4. grafikoa** / Gráfico 4

**Zahartzaroa funtzioko prestazioak**
Prestaciones de la función vejez




en efectivo, alcanzando un valor medio de 1.219.872 pesetas por habitante de edad superior a los 65 años, de las cuales 1.124.671 (el 87%) las aportó el Sistema de Seguridad Social.

El Sistema de Seguridad Social, del mismo modo que los Regímenes de Funcionarios se hallaba, en lo que se refiere a esta función, completamente especializado en las prestaciones en dinero, y más concretamente en las pensiones. La agrupación de Otros Sistemas de Protección Social resultó, en este caso, la única que llevó a cabo prestaciones en especie, la mayor parte de ellas relacionadas con el alojamiento de los ancianos.

### La función Enfermedad-Asistencia sanitaria

En 1995 se gastaron en la C. A. de Euskadi 249.823 millones de pesetas en Enfermedad y Asistencia Sanitaria, un 5,5% del PIB, es decir, algo más de 119.000 pesetas por cada habitante de la comunidad.

En cuanto a la naturaleza de los gastos realizados en esta función, cabe destacar que se trató de una de las dos funciones, junto con la de Exclusión Social, en la que las prestaciones en especie superaron en valor a las prestaciones en dinero.

La mayor parte del gasto en esta función se destinó a cubrir la Atención Sanitaria Ambulatoria, un 45%, que incluye también las recetas médicas.

El segundo lugar en importancia correspondió a la Atención Hospitalaria con un 35%, mientras que las “licencias

tez gorako biztanle bakoitzeko, eta horietatik 1.124.671 (% 87) Gizarte Segurantzako sistematik etorri ziren.

Funtzio honi dagokionez, gizarte-segurantzako sistemak, funtzionarioen errejimenek bezala, batik bat dirutan eman zituen prestazioak (eta, zehatzago esanda, pentsioen bidez). Bestelako gizarte-babeseko sistemak multzoa izan zen, kasu honetan, prestazioak jenerotan eman zituen bakarra; prestazio gehienek zaharrei ohe-janariak ematearekin izan zuten zerikusia.

### Gaixotasuna/osasun-asistentzia funtzioa

1995ean, Euskal AEn 249.823 milioi pezeta gastatu ziren gaixotasun eta osasun asistentzia-n. BPGaren % 5,5eko kopurua da hori, hau da, erkidegoko biztanle bakoitzeko 119.000 pezeta baino gehixeago.

Funtzio horretan egindako gastuen izaerari dagokionez, aipatzekoa da hori eta gizarte-bazterkeria izan zirela jenerotan emandako prestazioak dirutan emandakoak baino handiagoak izan ziren bi funtzio bakarrak.

Funtzio honetako gastuaren zatirik handiena anbulatorioko osasun-asistentzia ematera bideratu zen (% 45). Hor sartzen dira mediku-errezetak ere.

Garrantziaren aldetik, bigarren tokia ospitaleko asistentzia prestazioak hartu zuen (% 35), eta gaixotasunagatiko li-

**5. grafikoa** / Gráfico 5

**Gaixotasuna funtzioko prestazioak**
Prestaciones de la función enfermedad




por enfermedad" supusieron el 21% restante. Este último concepto se compone de los subsidios por Incapacidad Temporal pagados por el Instituto Nacional de la Seguridad Social, el Instituto Social de la Marina, las Mutuas de Accidentes de Trabajo y las distintas Mutualidades de Funcionarios, así como del mantenimiento de los salarios que por idéntica razón realizan las empresas y las Administraciones Públicas.

zentziak delakoak izan ziren gainerako % 21ak. Azken kontzeptu horrek bi osagai ditu. Batetik, aldi baterako lan-ezintasunagatik emandako laguntzak. Honako hauek ordaintzen dituzte laguntza horiek: Gizarte Segurantzako Espainiako Erakundeak (INSS), Itsasoko Gizarte Institutuak, lan-istripuetako mutualitateek eta funtzionarioen mutualitateek. Bestetik, aldi baterako lan-ezintasuna gertatzen denean, enpresek eta administrazio publikoek soldatei eusteko bideratutako dirua.

### Desempleo

Los gastos en esta función alcanzaron la cifra de 116.780 millones de pesetas, el 2,6% del PIB de la comunidad, que se dedicaron principalmente al pago de subsidios de desempleo, 58,6%, indemnizaciones por despido, 30% y formación, 7%.

Una valoración más fidedigna del esfuerzo relativo llevado a cabo en la protección del Desempleo exige tener en cuenta el número de situaciones que se pretende atender. Así, en la C. A. de Euskadi se gastaron, en 1995, una media de 1.034.440 pesetas por cada parado registrado en las oficinas del INEM (incluyendo las cotizaciones de los parados a la Seguridad Social que corren a cargo del INEM), mientras que en el Estado se llegó a una cifra más reducida, 919.350 pesetas. En el entorno internacional más inmediato, el europeo, y tomando como referencia el año 1994, se observa que la C. A. de Euskadi y España con 6.345 y 6.300 ECUs por parado registrado respectivamente, se aproximan a la media europea (EUR 12), que se

### Langabezia

Funtzio honetako gastuak 116.780 milioi pezetara iritsi ziren (autonomia-erkidegoko BPGaren % 2,6); batik bat, langabeziako laguntzak (% 58,6), iraizteagatiko kalte-ordainak (% 30) eta prestakuntza (7 %) ordaintzeko izan ziren.

Langabezia arloan gizarte-babesa eskaintzeko egin den ahalegina besteen aldean behar bezala neurtzeko, laguntza zenbat egoerei eskaini nahi zaien hartu behar da kontuan. Hartara, Euskal AEn, 1995ean, batez beste 1.034.440 pezeta gastatu ziren INEMen bulegoetan erregistratutako langabe bakoitzeko (INEMek langabeen kontura Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioak barne); Estatu mailan, aldiz, kopuru murritzagoa bideratu zen horretara, 919.350 pezeta. Nazioarteko ingurune hurbilenari, Europari, erreparatuz gero, eta 1994 urtea erreferentzia gisa hartuta, ikusiko dugu Euskal AE eta Espainia, hurrenez hurren, langabe erregistratu bakoitzeko 6.345 eta 6.300 ECU gastatzen dituztelarik, 12en Europako batez

**6. grafikoa** / Gráfico 6

**Langabezia funtzioko prestazioak**
Prestaciones de la función Desempleo




sitúa en 6.852 ECUs, en mayor medida que en otras funciones.

En el gráfico 6 se aprecia la escasa importancia relativa que alcanzan las medidas activas contra el desempleo en lo que se refiere al Gasto en Protección Social. Las medidas pasivas, destinadas a paliar las consecuencias de la inactividad laboral, constituyeron el 98% del gasto en la función en 1995, en tanto que las medidas activas se reducen a los esfuerzos dirigidos a la formación profesional, los cuales apenas representaron un 2% del gasto en la función.

bestekotik (6.852 ECU) gertu dabiltzala, beste funtzio batzuetan baino gertuago.

6. grafikoan nabari denez, langabeziaren kontrako neurri aktiboek garrantzi erlatibo txikia dute, gizarte-babeseko gastuari dagokionez. Neurri pasiboak, lan-geldialdiaren kalteak urritzera bideratutakoak, funtzioko gastuaren % 98 izan ziren 1995ean; neurri aktiboak, aldiz, lanbide-heziketara bideratutakoak baizik ez dira, eta horietan funtzioko gastuaren % 2 besterik ez zen egin.

## Supervivientes

Unos 29.925 millones de pesetas se dedicaron, a lo largo de 1995, a la protección de aquellas personas, en edad inferior a la de jubilación, que sufrieron la pérdida del familiar que representaba su principal sostén económico.

Esta función estuvo dominada por las prestaciones en efectivo, básicamente pensiones, que representaron más del 99% de la función. El resto del gasto correspondió a las ayudas concedidas para sufragar los gastos originados por el sepelio.

## Umezurtz-alargunak

29.925 bat milioi pezeta zuzendu ziren, 1995 urtean, beren euskarri ekonomiko handiena zuten senitartekoa galdu zuten eta erretiratzeko adina bete gabea zuten pertsonen babeserako.

Jenerotan emandako prestazioak nagusitu ziren funtzio honetan, batez ere, pentsioak (funtzioaren % 99 baino gehiago). Gainerako gastua ehorzketak sortutako gastuak ordaintzeko emandako laguntzak izan ziren.

## Invalidez

Los 71.544 millones destinados a cubrir la contingencia de Invalidez adoptaron una amplia variedad de tipos de gasto. El dominio de las pensiones, a ellas corresponde un

## Elbarritasuna

Elbarritasunari aurre egiteko jarri ziren 71.544 milioiak hainbat gastu-motaren bidez bideratu ziren. Pentsioak izan ziren nagusi (gastuaren % 70), baina ez, hala ere,

70% del gasto, resultó menos claro en esta función que en el resto, y resultó mitigado por la existencia de varios tipos de prestaciones que alcanzaron un volumen significativo, como son la Rehabilitación, 16%, la Integración económica de las personas con minusvalía, 8% y el Alojamiento, 5%.

beste funtzioetan bezain nabarmen. Izan ere, tamaina handi samarra izan zuten hainbat prestazio-mota ere izan zen, hala nola birgaitzea (% 16), elbarrien gizarteratze ekonomikoa (% 8) eta ohe-janariak (% 5).

**7. grafikoa** / Gráfico 7

**Elbarritasuna funtzioko prestazioak**
Prestaciones de la función invalidez




**8. grafikoa** / Gráfico 8

**Elbarritasun-eko prestazioak, administrazioen arabera (%)**
Prestaciones de invalidez por administraciones (%)



Por otro lado, cada grupo de administraciones muestra una especialidad como se puede apreciar en el gráfico 8: El sistema de Seguridad Social en el abono de pensiones, mientras que el INEM realizó prestaciones exclusivamente en el campo de la integración económica de los minusválidos a través del programa de Centros Especiales de Empleo. En los Regímenes de Funcionarios, además de las pensiones, adquieren importancia las prestaciones de asistencia a los minusválidos que en el gráfico aparecen bajo la rúbrica Otros. El grupo de Otros Sistemas presentó una distribución más equilibrada de tipos, en la que ocuparon lugares destacados la Rehabilitación y el Alojamiento, así como la Integración económica, de cuyo peso se puede responsabilizar casi exclusivamente a la Fundación ONCE.

Beste alde batetik, administrazio-talde bakoitzak badu espezialitate bat, 8. grafikoan ageri denez: Gizarte Segurantzako sistemak, pentsioak ordaintzea; INEMek, berriz, elbarrien gizarteratze ekonomikoaren arloan baizik ez zituen prestazioak eman, enplegu-zentro berezien egitarauaren bitartez. Funtzionarioen errejimenak atalean, pentsioek ez ezik, garrantzi berezia dute grafikoan bestelakoak legez azaltzen diren elbarrientzako asistentzi prestazioek ere. Bestelako sistemak taldeak moten araberako banaketa orekatuagoa izan zuen; birgaitzeak eta ohe-janariak nabarmendu ziren, bai eta gizarteratze ekonomikoa ere. Azken horren pisua ONCE fundazioari zor zaio ia bakar-bakarrik.

## Exclusión Social

El gasto derivado de la protección de aquellos individuos que sufren algún tipo de Exclusión Social en la C. A. de Euskadi alcanzó los 28.870 millones de pesetas y supuso una cantidad de 13.760 pesetas por cada habitante de la Comunidad en el año 1995.

La “Exclusión Social” como función SEEPROS resulta peculiar con respecto a las demás en varios sentidos. Las grandes instituciones públicas de Protección Social pierden su protagonismo que pasa a ser, en exclusiva, de los Otros Sistemas. Como consecuencia, las características del gasto en aquellas instituciones dejan de ser aplicables al caso. De este modo, las prestaciones en especie dominan claramente a las dinerarias y la variedad de los tipos de prestación aumenta considerablemente.

## Gizarte-bazterkeria

1995ean, nolabaiteko gizarte-bazterkeria pairatzen duten norbanakoak babesteagatik egindako gastua, Euskal AEn, 28.870 milioi pezetara iritsi zen, hau da, 13.760 pezeta erkidegoko biztanle bakoitzeko.

Gizarte-bazterkeria, GBABESE funtzio gisa, besteak ez bezalakoa da hainbat alderditatik begiratuta. Gizarte-babeserako erakunde publiko handiek beren protagonismoa galtzen dute, eta protagonismo hori bestelako sistemak direlakoek hartzen dute, bakarrean. Erakunde publiko horietan gastuak izaten dituen ezaugarriak, ondorioz, ez dira honako honetan beteko. Hartara, jenerotan emandako prestazioak dira nagusi, nabarmen, dirutan emandakoen gainetik, eta prestazio-motak askoz gehiago dira.

**9. grafikoa** / Gráfico 9

**Gizarte-bazterkeria funtzioko prestazioak**
Prestaciones en exclusión social



En el año 1995 la cantidad destinada a las “Otras prestaciones en especie”, rúbrica que contiene el gasto efectuado en centros no residenciales destinados al conjunto de la población en situaciones de desamparo o necesidad, destacó por encima de las demás.

Los Complementos de renta constituyeron también una cuantía importante, con el 26% de los recursos puestos en juego en esta función en el año de referencia. Dentro de esta categoría de gasto destacó la participación de los fondos destinados por el Plan de Lucha contra la Pobreza a garantizar un Ingreso Mínimo de Inserción. Esta acción ocupó un total de 6.244 millones de pesetas, es decir, el 84% del gasto en este tipo concreto.

En tercer lugar se situaron los gastos realizados en centros residenciales para la población marginada, así como las ayudas dirigidas por el Gobierno Vasco, las diputaciones y los ayuntamientos a mejorar las condiciones de vivienda de la población.

Finalmente las acciones emprendidas en el campo de la rehabilitación de alcohólicos y drogodependientes, y el resto de las prestaciones en especie dispusieron de participaciones inferiores al 10%, aunque significativas dentro de la función.

### Familia e Hijos

Esta función reúne una parte poco significativa del gasto total en Protección Social que está compuesta de subsidios temporales por maternidad abonados por el INSS, algunos pagos que realizaron las empresas a sus trabajadores, y las asignaciones familiares por hijos a cargo pagadas por la Seguridad Social y las Mutualidades de Funcionarios. Parte de estas últimas se destinan a familias con hijos que sufren algún tipo de minusvalía, razón por la cual se computan como Otras prestaciones en efectivo.

### Vivienda

Con una participación del 0,2% en el conjunto de las de las Prestaciones Sociales en 1995, la función Vivienda obtuvo una atención marginal por parte de los diferentes Sistemas de Protección Social.

## DISTRIBUCION DEL GASTO POR SISTEMAS DE PROTECCION SOCIAL

La Protección Social en la C. A. de Euskadi se basó fundamentalmente en las Instituciones Públicas de Protección Social. El Sistema de Seguridad Social llevó a cabo en 1995 el 70% del gasto, con 663.181 millones de pesetas destinados a tal efecto, gasto que se repartió entre las

1995 urtean, jenerotan emandako bestelako prestazioak finantzatzera bideratutako kopurua besteen gainetik nabarmendu zen. Atal horretan, halako egoeretan (babesik gabe edo behar larrian) dauden biztanle guztientzat diren eta egoitza ez diren zentroetan egindako gastua sartzen da.

Errenta-osagarriak atalak ere kopuru garrantzitsua hartu zuen, urte hartan funtzio honetara bideratutako baliabideen % 26 hartu baitzituen. Gastu-kategoria honen barruan, aipagarria izan zen Pobreziaren aurka Borrokatzeko Planaren bidez Gizarteratzeko Gutxeneko Irabazia ziurtatzera zuzendu ziren funtsetan izandako parte-hartzea. Ekintza horrek, guztira, 6.244 milioi pezeta hartu zituen, hau da, mota honetako gastuaren % 84.

Hirugarrenik, baztertutako biztanleentzako egoitza-zentroetan egindako gastuak izan ziren, bai eta Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek biztanleen etxebizitzen egoera hobetzera zuzendutako laguntzak ere.

Azkenik, alkoholzaleak eta drogazaleak birgaitzeko hasitako ekintzek eta jenerotan emandako gainerako prestazioek % 10 baino gutxiago hartu zuten, nahiz eta funtzioaren barruan garrantzizko kopuruak izan.

### Familia eta seme-alabak

Funtzio honek ez du zati handirik hartzen gizarte-babeseko gastu osoaren barruan, eta osagai hauek ditu: INSSek amatasunagatik aldi baterako ordaintzen dituen laguntzak, enpresek beren langileei ordaintzen dizkieten kopuru batzuk, eta seme-alabak ardurapean edukitzeagatik Gizarte Segurantzak eta funtzionarioen mutualitateek familiei emandako kopuruak. Azken horietako zati bat nolabaiteko elbarritasuna duten seme-alabekiko familientzat izaten da; helburu horretarako direnez, jenerotan emandako bestelako prestazioak direla jotzen da kontuak egiteko garaian.

### Etxebizitza

Gizarte-prestazio guztietatik % 0,2 izaki 1995ean, esan dezakegu etxebizitza funtzioari ez zitzaiola garrantzi handirik eman gizarte-babeseko sistemetan.

## GASTUAREN BANAKETA, GIZARTE-BABESEKO SISTEMEN ARABERA

Euskal AEn, gizarte-babeseko erakunde publikoak izan ziren gizarte-babesaren oinarri nagusia. 1995ean, Gizarte Segurantzako sistemak egin zuen gastuaren % 70, horretara 663.181 milioi pezeta bideratuta. Zahartzaroa, gaixotasun/osasun-asistentzia, elbarritasuna, umezurtz-alargu-

funciones Vejez, Enfermedad-Atención Sanitaria, Invalidez, Supervivencia y Familia e Hijos. Si se añade a esta cantidad la destinada por el INEM, la otra gran institución del Sistema Público de Protección Social, ese porcentaje asciende a un 80% del gasto total ese mismo año. Y esto sin que se incluya el gasto que correspondió a lo que se ha denominado Regímenes de Funcionarios Públicos, parte del cual se refiere al Régimen Especial de Funcionarios, dentro del Sistema de Seguridad Social.

nak eta familia eta seme-alabak funtzioen artean banatu zen gastu hori. Kopuru horri INEMek, gizarte-babeseko sistema publikoko beste erakunde handiak, emandakoa gehituz gero, ehuneko hori urte hartako gastu osoaren % 80ra iristen da. Eta hori, funtzionario publikoen errejimenak delakoari egokitu zitzaion gastua sartu gabe. Gastu horren zati bat funtzionarioen errejimen bereziari dagokio, Gizarte Segurantzako sistemaren barruan.

**10. grafikoa** / Gráfico 10

**Administrazio-taldeen gizarte-prestazioak (%)**
Prestaciones sociales de los grupos de administraciones (%)






El predominio de un Sistema Público de Protección Social con una estructura institucional fruto de una larga trayectoria histórica, tiene como consecuencia un fuerte sesgo hacia las acciones que tradicionalmente han sido objeto de protección como el riesgo de enfermedad y accidentes de trabajo, o las pensiones de vejez y supervivientes. En cambio, aquellas otras que no adquirieron en su momento un nivel de protección equivalente, como en el caso de la garantía del acceso a la vivienda o las acciones dirigidas a facilitar la inserción social de ciertas capas sociales, han sido hacia donde destinan más recursos el resto de los Sistemas de Protección Social.

Esto se traduce en una desigual naturaleza de las acciones emprendidas por unos y otros sistemas tanto en lo que se refiere a las funciones atendidas como a los tipos de prestación, tal y como se puede apreciar en los gráficos 10 y 11.

Aspaldidanik datorren joerari jarraituz, erakunde publikoen inguruan egituratutako gizarte-babeseko sistema publikoa da nagusi. Ondorioz, garrantzi handia dute ohituraz babestu izan diren ekintzek, hala nola laneko gaixotasunek eta istripuetarako aseguruek, edo zahartzaro, alarguntza eta zurztasuneko pentsioek. Bere garaian beste horrenbesteko garrantzia hartu ez zuten beste ekintzei (etxebizitza lortzea bermatzea edo gizarte-multzo batzuek gizartera daitezen errazteko ekintzak, esaterako), ordea, ez zaie arreta handirik eskaini. Baliabide gehienak gizarte-babeseko sistema publikoaren hutsune horiek betetzera zuzentzen dituzte, hain zuzen, gizarte-babeseko gainerako sistemek.

Sistema batzuek eta besteek egindako ekintzak, bada, izaera ezberdinekoak dira, bai arreta eskaintzen zaien funtzioei dagokienez, bai prestazio-motei dagokienez; halaxe erakusten digute 10. eta 11. grafikoek.

**11. grafikoa** / Gráfico 11

**Dirutan eta jenerotan emandako prestazioak, sistemen arabera (%)**
Prestaciones en efectivo y en especie por Sistemas (%)




Se aprecia en general un predominio de las prestaciones en dinero. El sesgo es mayor en el INEM y los Regímenes de Funcionarios quedando oculto en el Sistema de Seguridad Social por efecto de la Asistencia Sanitaria que corre principalmente a cargo del Sistema Sanitario Público.

Oro har, dirutan emandako prestazioak ageri dira nagusi. Neurri handiagoan, gainera, INEMen eta funtzionarioen errejimenetan; Gizarte Segurantzako sisteman, ostera, ez da horrelako nagusitasunik azaltzen, gehienbat osasun-sistema publikoaren kontura doan osasun-asistentziak duen garrantziaren eraginez.

## LOS INGRESOS DE LOS SISTEMAS DE PROTECCION SOCIAL

En 1995 los ingresos a través de los cuales se financiaron las acciones de Protección Social de los diferentes Siste-

## GIZARTE-BABESEKO SISTEMEN SARRERAK

1995ean, sistema guztietako gizarte-babeseko ekintzak finantzatzeko erabilitako diru-sarrerak 995.071 milioi pe-

mas ascendieron a 995.071 millones de pesetas, de los cuales la mayor parte provino de las Cotizaciones Sociales, las cuales supusieron, con 673.454 millones de pesetas, un 67,7% del total.

zetakoak izan ziren. Zatirik handiena gizarte-kotizazioetatik etorri zen: 673.454 milioi pezeta, sarrera guztien % 67,7.

**12. grafikoa** / Gráfico 12

**Sarreren banaketa, motaren arabera**
Distribución de los ingresos según tipos




La otra gran fuente de ingresos para los Sistemas de Protección Social la constituyen las Aportaciones Públicas, que con 295.595 millones aportaron casi una tercera parte de los recursos dedicados a Protección Social en el año de referencia.

Estos dos datos permiten afirmar que el carácter contributivo predomina en los Sistemas de Protección Social de la C. A. de Euskadi. Característica que comparte con otros países de su entorno como Francia, donde el 76,6% de los ingresos provienen de las Cotizaciones Sociales, Alemania (70,5), Italia (62,9) o Bélgica (69,6). El peso de las cotizaciones es significativamente menor, en cambio, en países como el Reino Unido (41,7), Irlanda (38,2) y sobre todo en Dinamarca (19,3). En este último país las Aportaciones Públicas adquieren la mayor parte del protagonismo y representan el 75,6% de los recursos aportados durante el año 1994.

Las Cotizaciones Sociales pueden abonarlas los protegidos o bien correr a cargo de los empleadores. Tomando como referente la media, en el año 1994, de los doce países miembros de la Unión Europea antes de la adhesión de Austria, Finlandia y Suecia, se puede observar que las cotizaciones abonadas por los empleadores superan a las de los protegidos, representando estas últi-

Gizarte-babeseko sistemen beste sarrera-iturri nagusia ekarpen publikoak dira; 295.595 milioi izan zirenez, urte hartan gizarte-babesera zuzendutako baliabideen ia herena eman zuten.

Bi datu horietan oinarri hartuta, esan dezakegu Euskal AEko gizarte-babeseko sistemak, batik bat, kontribuzio-izaerakoak direla. Halaxe gertatzen da inguruko zenbait herrialdeetan ere, hala nola Frantzian (sarreren % 76,6 gizarte-kotizazioetatik eskuratzen dira), Alemanian (70,5), Italian (62,9) edo Belgikan (69,9). Kotizazioen garrantzia askoz txikiagoa da, ordea, Erresuma Batuan (41,7), Irlandan (38,2) eta, batez ere, Danimarkan (19,3). Azken herrialde horretan ekarpen publikoak dira iturri nagusia, 1994an baliabideen % 75,6 izan baitziren.

Gizarte-kotizazioak, batzuetan, babestuek berek ordaintzen dituzte; beste batzuetan, enplegatzaileek. Austria, Finlandia eta Suedia sartu aurretik, 1994 urtean, Europako Batasuneko hamabi herrialdeek zuten batez bestekoari begiratuz gero, ikusiko dugu enplegatzaileek ordaindutako kotizazioen zenbatekoa babestuek ordaindutakoena baino handiagoa izan zela, babestuek ordaindutakoaren

mas un 67% de las primeras. O dicho de otro modo, mientras que las contribuciones de los protegidos supusieron, ese año, un cuarto de los recursos destinados a la Protección Social, los empleadores nutrieron las arcas de los Sistemas de Protección Social con 657.582 millones de ECUs, que representaban un 39% sobre los ingresos totales. En la C. A. de Euskadi el protagonismo de las cotizaciones abonadas por los empleadores fue aún mayor, alcanzando el valor más alto dentro del grupo de los países de la Unión Europea, con un 51,5% de los ingresos del conjunto de los sistemas.

% 67 ordaindu baitzuten. Bestela esanda, babestuek urte hartan egindako ekarpenak gizarte-babesera zuzendutako baliabideen laurdenak izan ziren; enplegatzaileek, berriz, 657.582 milioi ECU ekarri zituzten gizarte-babeseko sistemen kutxetara, hots, sarrera guztien % 39. Euskal AEn, enplegatzaileek ordaindutako kotizazioen nagusitasuna are handiagoa izan zen, Europako Batasuneko herrialdeen artetik ehunekorik handiena izan baitzuen: sistema guztietako sarreren % 51,5.

**13. grafikoa** / Gráfico 13

**Gizarte-kotizazioen jatorria**
Procedencia de las Cotizaciones sociales




Otra gran fuente de ingresos la constituyen las Aportaciones Públicas. En los países de la Unión Europea (la referencia vuelve a ser la de la Europa de los 12, y el año 1994) los Sistemas de Protección Social ingresaron por este concepto el 30% de sus recursos. Este valor, sin embargo, esconde importantes diferencias entre países. Así, si bien en la mayoría de los estados europeos el peso de la aportación pública se encuentra entre un 20% y un 40% (con el Reino Unido y Luxemburgo superando ligeramente esta última cifra), Irlanda y Dinamarca representan la alternativa con un modelo de financiación completamente diferente, en el que los recursos públicos adquieren el protagonismo principal (61% y 76% respectivamente). La C. A. de Euskadi, por su parte, se sitúa en una posición muy próxima a la de la media europea con un 29,7% de los ingresos atribuibles a la aportación del Estado.

Beste sarrera-iturri handia ekarpen publikoak dira. Europako Batasuneko herrialdeetan (12en Europari eta 1994 urteari buruz ari gara honakoan ere), gizarte-babeseko sistemek kontzeptu horren bidez jaso zituzten beren baliabideen % 30. Kopuru horrek, hala ere, ez dizkigu adierazten herrialde batetik bestera izandako alde handiak. Izan ere, Europako estatu gehienetan ekarpen publikoa % 20 eta % 40 bitartekoa den arren (Erresuma Batua eta Luxenburgo azken kopuru horretatik goraxeago dabiltzala), Irlandak eta Danimarkak guztiz bestelako finantzaketa-eredua aukeratu dute, baliabide publikoei nagusitasuna emanda (% 61 eta % 76, hurrenez hurren). Euskal AE, berriz, Europako batez bestekotik oso hurbil dago, sarreren % 29,7 baitatoz Estatuaren ekarpenetatik.

**14. grafikoa** / Gráfico 14

**Gizarte-babeseko sistemen sarrera-iturriak. Kotizazioak eta ekarpen publikoak**

Fuentes de Ingreso de los Sistemas de Protección Social. Cotizaciones y Aportaciones públicas




Las diferencias en los modelos de financiación resultan patentes entre los distintos Sistemas y se visualizan incluso en las grandes agrupaciones que se han propuesto. El Sistema de Seguridad Social, el INEM, y los Regímenes de Funcionarios Públicos se muestran como sistemas esencialmente contributivos con el 70,4%, 65,4%, y 98,4% de sus ingresos procedentes de las cotizaciones sociales respectivamente. Las Aportaciones Públicas adquieren en estos casos el papel de cubrir las necesidades financieras allí donde los recursos aportados por los contribuyentes no alcanzan. Los Otros Sistemas de Protección Social presentan, respecto a los anteriores, ciertas peculiaridades. En primer lugar las aportaciones con cargo a los presupuestos públicos adquieren una proporción más significativa, el 36,3%. En cuanto a las Cotizaciones Sociales, si bien suponen más de la mitad de sus ingresos, corresponden en su totalidad a cotizaciones de los empleadores, de las cuales la mayor parte son Prestaciones Sociales directas que las empresas, en tanto que Sistemas de Protección Social, otorgan a sus trabajadores. El resto de los sistemas incluidos en esta agrupación se financia exclusiva o fundamentalmente a partir de las Aportaciones Públicas, si bien los Otros ingresos, en los que se incluyen las aportaciones privadas de familias e Instituciones sin Fines de Lucro, adquieren una proporción significativa sobre el total, 13,3%.

Agerikoak dira sistema ezberdinen arteko finantzaketa-ereduen aldeak, eta arestian egin ditugun multzoen barruan ere nabari dira. Gizarte-segurantzako sistema, INEM eta funtzionario publikoen errejimenak funtsean kontribuziozko sistemak direla ikus daiteke, sarreren % 70,4, % 65,9 eta % 98,4 gizarte-kotizazioetatik eskuratzen baitituzte, hurrenez hurren. Horietan, kontribuziogileek emandako baliabideak iristen ez direnean finantzaketa-beharrei erantzutea da ekarpen publikoen zeregina. Gizarte-babeseko beste sistemak direlakoek badituzte hainbat berezitasun, aurrekoen aldean. Lehenik eta behin, aurrekontu publikoen kontura egindako ekarpenek ehuneko handiagoa hartzen dute, % 36,3. Gizarte-kotizazioei dagokienez, nahiz eta sarreren erdiak baino gehiago izan, enplegatzaileen kotizazioak dira guztiak. Kotizazio horietatik zati handiena enpresek, gizarte-babeseko sistema diren aldetik, beren langileei zuzenean emandako gizarte-prestazioak dira. Talde horretan sartutako gainerako sistemak ekarpen publikoen bitartez finantzatzen dira gehienbat edo bakar-bakarrik. Dena dela, bestelako sarrerak izenekoek (hor sartzen dira familien eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen ekarpen pribatuak) ehuneko nabarmena (% 13,3) hartzen dute, orobat.

**15. grafikoa** / Gráfico 15

**Sarreren banaketa, administrazioen arabera (%)**
Distribución del Ingreso según administraciones (%)



Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

www.eustat.eus